

# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko azaroaren 28a

113. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

B SAILA:

**Foru lege proposamenak:**

- Foru lege proposamena, pertsona zaharrak hartzeari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak ([2. or.](#)).
- Foru Lege proposamena, pertsona zaharrak hartzeari buruzkoa. Gizarte Gaietako Batzordeak onetsitako irizpena ([15. or.](#)).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru lege proposamena, pertsona zaharrak hartzeari buruzkoa**

### **AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, pertsona zaharrak hartzeari buruzko Foru Lege proposamenari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proposamen hori 2002ko otsailaren 19ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko urriaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

#### **1. ZUZENKETA**

##### **IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Aplikazio eremua.

Artikuluaren edukia ondokoa dioen beste batekin ordeztua:

1. artikulua. Aplikazio eremua.

1. Foru lege hau aplikatuko zaio pertsona zaharrak haienak ez diren familietan hartzeari, ordainsari baten truke, zerbitzu-mota hori aukeratzten dutenean Nafarroako Foru Komunitatean eskueran dauden egoitza-zerbitzu guztien artetik.

2. Familia zabalaren, harreman pertsonalen, auzokideen edo erkidegoaren ingurunean pertsona zaharrak hartzea, ordainsari baten truke egiten denean, laguntza pertsonalizatuko zerbitzu gisa sartuko da hirugarren adinerako gizarte-zerbitzuen sarean.

Zioak: Gure ustez, pertsona zaharrak haienak ez diren familietan hartzearen gaia, pertsona zaharren aukera askea denean, eta haren famili harremanak zein diren kontuan izan gabe, arautu

behar da tartean ordainsari bat dagoenean soilik, horrela bermatzeko haiei laguntza eta babes egozia ematen zaiela eta haien auzoko edo erkidego giroan –landakoa nahiz hirikoa izan– integratuta segitzen dutela. Ordainsaririk ematen ez den kasuetan edo pertsona zaharrak beren familiek hartzen dituzten kasuetan, gure iritzia da administrazioak ez duela esku hartu behar, legeek jadanik jasotako kasuetan izan ezik.

### **2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

#### **2. ZUZENKETA**

##### **IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Kontzeptua.

Artikuluaren edukia ondokoa dioen beste batekin ordeztua:

“Pertsona zaharrentzako famili harreraren zerbitzua datza haiei famili bizikidetasuneko aukera bat ematean, haien gaitasunen araberako zainketa eta laguntzekin, euren independentzia eta erkidego-integrazioa luzatzeko xedez.

1. Famili harrerak berarekin dakar pertsona hartzailea eta hartua etxebizitza berean elkarrekin bizitzea, ohiko famili bizikidetzan, xedea izanik pertsona hartzaileek pertsona hartuak zaintzea ongizate psikofisiko orokorrari dagozkion ikuspegi guztietatik, eta behar diren laguntzak eta zerbitzuak eska ditzaten osasunak eta ongizateak okerrera egiten duten egoeretan.

2. Nafarroako Gobernuak arautuko ditu, bate-tik, hirugarren adinerako famili bizikidetasuneko zerbitzu berri horretarako prezio publikoak eta, bestetik, famili harrera aukeratzten duten pertsona

zaharrentzako laguntza publikoak, haien errenta eta ondarearen araberakoak.

3. Famili harrera ezinezkoa izanen da pertsona hartzaile edo hartuek erabakitze edo euren kasako ulermenerako gaitasunik ez daukatenean edo epaileak desgaitu dituenean. Halaber, harre-  
rak amaitu beharko du laguntza espezializatua beharrezkoa duten eta adimen-ahalmenak edo fisikoak kaltetzen dituzten eritasunen kasuan edo zerbitzuaren jarraipena egiteko ardura daukaten gizarte-zerbitzuek hala eskatuta.”

Zioak: Ez gaude ados famili harrera famili harreman desegokiak dituzten pertsona zaharretara soilik mugatzearekin. Badaude beste egoera batzuk, hala nola familia beraren baitan kideen arteko distantzia geografikoa egotea, pertsona zaharengan deserrotze handia eragiten dutenak; halaber, euren ingurunean egon nahia, edo auzokide nahiz lagunekin euren gustuko bizikidetzan egotea eta abar; horiek guztiak aukera onargarriak dira, eta pertsona zahar batzuek horiek nahiago dituzte beren familiarekin bizitzea baino. Era berean, ez gaude ados Nafarroan zahar-etxe-ko postu bat lortu ezinarekin, hain zuzen ere zahar-etxeen kopuru ez nolanhikoa dagoen une batean, non zahar-etxeetako postu horietako bat bermatuta baitago, zerbitzu publiko gisa.

### 3. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI  
**MILAGROS RUBIO SALVATIERRA**  
ANDREAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Lehen lerrokada aldatzen da. Honako testu hau izanen luke:

2. artikulua. Kontzeptua.

Familiako harrera da zahar-etxe batean bizi nahi ez duten edo bestelako laguntza-zerbitzurik eskuratu nahi ez duten pertsona zaharrei zainketa egoki eta pertsonalizatuak ematea; horren bidez, haien bizi kalitatea hobetzen da eta modua ematen zaie bizitza independente edo sasi independente bat izateko ohiko ingurune baten baitan. Halakoetan, ondoko irizpideei jarraituko zaie:”

Zioak: Gure iritziz, ez dago zertan murriztu “famili harreman desegokiak” dauzkaten pertsona zaharretara; izan liteke lehentasunezko aukera pertsonal bat. Horrez gain, gure ustez ezin da ezarri beste laguntza-baliabiderik ez dagoen kasuetarako egintza gisa, baliabide horiek unibertsalak izan behar baitute. Gure iritziz, beste aukera bat izan behar du, gehiagoren artean, eta ez beste baliabiderik ez egotearen ondoriozkoa.

### 4. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2.2. artikuluari aurkezturiko zuzenketa.

2. idatz-zatia kentzea.

Zioak: Pertsona zaharrak ez du inor zaindu behar; aitzitik, bera zaindu behar dute. Horrelako jarduerak eginen ditu, egitekotan, bere gogoz.

### 5. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI  
**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**  
ANDREAK AURKEZTUA

2. artikuluko lehen lerrokadari kenketa egiteko zuzenketa.

Kendu egingen da “... eta famili harreman eskasak dauzkaten...”.

Zioak: Famili harreran parte hartzeko, ez da behar pertsona hartuak famili harreman eskasak izatea.

### 6. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluari aurkezturiko zuzenketa

Lehen lerrokadan ordezketa egitea:

Ondokoa dioen lekuan: “famili harreman eskasak dauzkaten pertsona zaharrei”

Honela behar du: “horrela bizitzea aukeratzen duten pertsonei”.

Zioak: Konnotazio negatiboak saihestea eta aukera horri esparru handiago bat ematea.

### 7. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

13. artikuluari aurkezturiko zuzenketa

3. idatz-zatia aldatzea

Honela behar du: “Prestazio honetarako prezio bat ezarriko da, pertsona zaharrentzako zentro eta zerbitzuen esparruaren barnekoa, eta laguntzak emanen zaizkie osoki ordaindu ezin dutenei; halaber, zorra ezarriko da”.

Zioak: Kapital higigarri edo higiezina lagatzea 17/2000 Legearen aurka egon daiteke.

## 8. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI  
**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**  
ANDREAK AURKEZTUA

2. artikuluko lehen lerrokadako 3. idatz-zatian kenketa egiteko zuzenketa.

Kendu eginen da "...ondasun higikorak edo ondasun higiezinak lagatuz edo..."

Zioak: Harrera-zerbitzuaren ordainsaria ezin da inola ere izan ondasun-lagapena.

## 9. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI  
**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**  
ANDREAK AURKEZTUA

2.4. artikulua ordezteko zuzenketa.

"Beharko dute"ren ordeztu "ahalko dute" jarriko da.

Zioak: Tutoretza eratzea ez da betebeharrak gisa ezarri behar, aukera gisa baizik.

## 10. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI  
**MILAGROS RUBIO SALVATIERRA**  
ANDREAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa. 2. idatz-zatia aldatzen da. Honako testu hau izanen luke:

"2. Behin betiko harrera. Pertsona zaharrentzako egoerak edo haren borondateak halakorik kome-nigarri egiten dutenean; eskualdeko gizarte zerbitzuek baimena eman beharko dute horretarako".

Zioak: Erkidegoan ez litzateke laguntza-gabeziako egoerarik gertatu beharko (halakotzat uler-tuz administrazio publikoek bestelako laguntza asistentzialak ematea), baizik eta lehentasunez izan beharko luke pertsona zaharrak bere borondatea espresuki adierazita eginiko aukera pertsonal bat.

## 11. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluari aurkezturiko zuzenketa.

6. puntu berri bat eranstu da. Hona testua:

"Lege honetan jasotako pertsona zaharren hartzea laguntza espezializatuko gizarte-zerbitzu gisa antolatzen da. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek adieraziko dute pertsona hartzailearen/hartzaileen egokitasuna, eta haiek hasiko dute izapidaketa, Gizarte Ongizate Departamentuak erregelamendu bidez garatuko duena, hartutako pertsonaren edo pertsonen famili integrazioa ahal den heinean bermatzeko baldintzak sortzeko, eta, aldi berean, haren gizarte-inguruntetik ez deserrotzeko."

Zioak: Toki eta foru administrazioek, gizarte-arloko esku-hartzean zeinek dituen eskumenen esparruan, babes eta jarraipen eginkizuna bete behar dute, ezartzen diren kontratu-baldintzek ondorio gisa ekar dezaten bizikidetasun-modu horretara jotzen duten pertsona zaharren bizi-kalitatearen hobekuntza.

**3. ARTIKULUARI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

## 12. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa. 3. Modalitateak.

Artikuluaren edukia ondokoa dioen beste batekin ordeztea:

"3. artikulua. Modalitateak.

Familiako harrera izan ahalko da aldi baterakoa edo iraunkorra, famili bizikidetasuneko modalitate hau aukeratzen duen pertsona zaharrak erabakitakoaren arabera, ikuskapenaren arduradunak izan daitezkeen gizarte-zerbitzuen adostasuna izanik.

Zioak: Xedea da ez baldintzatzea gizarte-zerbitzuaren modalitate berri honen iraupena, eta inoiz ere ez dadila erabil egoitza-zerbitzuen ordeztu gisa, baizik eta beste aukera bat gisa, ordainsari baten truke famili giroko laguntza pertsonal bat eskuratzen duena.

**13. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3.2 artikuluari aurkezturiko zuzenketa.

Azken lerrokadan ordezketa egitea:

Ondokoa dioen lekuan: “eskualdeko gizarte zerbitzuek baimena eman beharko dute horretarako”

Honela behar du: “eskualdeko gizarte zerbitzuek aurretiaz aldeko txostena eman beharko dute horretarako”.

Zioak: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek txostena eta jarraipena eginen dituzte, baina baimena eman behar duena horretarako eginkizuna duen taldea izanen da.

**4. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****14. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua (helburua) kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, hitzarmen edo akordioa ikuskatu behar du gaiaren gaineko eskumena daukan administrazio publikoak, horrela bermatzeko babes emateko esku-hartzea, ezaugarrien egokitasuna, pertsona zaharren hautaketa askea eta gizarte-zerbitzuko modalitate honen jarraipena. Katalunian egin zen lehen legetik ekarpenak egin diren arren, berriki aldatu egin dute 22/2000 Legea, zerbitzu horren plangintza eta kudeaketan Kataluniako administrazio publikoak daukan erantzukizuna taxutzeko.

**15. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

Artikulu berri bat gehitzea. Hona testua:

“4. artikulua. Harrera, gizarte-zerbitzu gisa.

Foru lege honek araututako pertsona zaharren harrera antolatzen da erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzu gisa, erabiltzaileei familia-giroko

laguntza pertsonalizatu egokia eta haien erkidego-ingurunean egotea bermatzeko.”

Zioak: Nahiz eta zerbitzu hau administrazio publikoekiko independenteak diren pertsona hartzaileen bitartez eman daitekeen, administrazio horiek ezin diote euren erantzukizunari uko egin zenbait esparrutan, hala nola hirugarren adinari zor zaion laguntza, zerbitzuaren baldintzak zaindu beharra eta famili giroko egoitza-modalitate hau arautuko duten gutxieneko arau batzuk ezartzea (kasu batzuetan modalitate hori gauzatzen da behar bezalako babesik izan gabe).

**5. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****16. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua, “hartzaileen eta hartutakoen betekizunak eta hautaketa”, kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, bai hartzaile eta hartutakoen betekizunak bai eraketaren betekizun formalak arautu behar dira foru lege hau garatzen duen araudi batean, hala Plangintza Zerbitzutik nola Familiaren eta Sektore Zerbitzuen Zuzendariordetzatik, Gizarte Ongizatean.

**17. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

Artikulu berri bat gehitzea. Hona testua:

“5. artikulua. Foru lege hau garatu eta aplikatzeko eskudun den administrazioa.

1. Foru administrazioari dagokio, Gizarte Ongizate Departamentuaren bitartez, foru lege hau garatu eta aplikatzea eta zerbitzuaren plangintza, kudeaketaren kontrola, erregistroa, ikuskaritza, prezio publikoen zehaztea eta hartutako pertsona zaharren ongizate-baldintzak bermatzeko esku-hartze babeslearen eginkizunak esleitzea.

2. Nafarroako Gobernuak Nafarroako administrazio publiko ezberdinen eskumenak finkatuko ditu zerbitzu hori emateari dagokionez, zerbitzua eskatzen duten herritar zaharrei hurbiltzeko; halaber, botere publikoen babes-ekintza ezarriko du.”

Zioak: Hirugarren adinerako gizarte-zerbitzu publikoa den aldetik, zehaztasun tekniko jakin bat behar du, zenbait gai garatzeari begira, hala nola ezaugarriak, hartzaile eta hartutakoen egokitasuna, etxebizitza, ordainketa-baldintzak, balizko kalte fisiko edo adimenekoak daudenean eginen den esku-hartzea, ez-zaintzea edo tratatu txarrak direla-eta gerta daitezkeen egoerak; horrela, kanpo-kontrol bat eta botere publikoen babesekintza gauzatu ahal izateko.

## 18. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI  
**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**  
ANDREAK AURKEZTUA

5. artikuluko 1. idatz-zatia ordeztuko zuzenketa.

Proposatzen da "haiek zaintzen dituen pertsonaren" ordez "haien kuratela duen pertsonaren" esapidea jartzea.

Zioak: Terminologia egokitzea kode zibileko III. kapituluari jadanik dagoenari (kapitulu horrek arautzen du instituzio hori).

## 19. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5.4. artikuluari aurkezturiko zuzenketa

2. lerrokadan kenketa egitea:

"...harrera-hitzarmenean ezarritako epean" dioenetik "...hiru urte baino gutxiagokoa" dioenera bitartean dagoena, biak barne, halako moduan non "...jardunen dute" esanez bukatuko baita.

Zioak: Ez dago eperik ezarri beharrik. Pertsonaren borondateak izan behar du nagusi, nahi duenean eta nahi duen arte hartua izateko.

## 20. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI  
**MILAGROS RUBIO SALVATIERRA**  
ANDREAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa. 2. puntua aldatzen da eta 3. puntua kentzen da. 2. puntua honela idatzita geldituko litzateke:

2. Pertsona zaharren adina ezin da hirurogei urte baino gutxiagokoa izan, eta pertsona hartzaileak osasun-egoera egokia izan behar du pertso-

na hartuak edo hartuek beharrezko dituzten zainketak eta/edo laguntzak eskaini ahal izateko.

3. Kendu eginen da.

Zioak: Pertsona hartzailearen osasun-egoera bikaina baldin bada, ez du zertan izan hartutako pertsona baino 15 urte gazteagoa. Irizpide hori aldatuta, hirugarren puntua baliorik gabe gelditzen da.

## 21. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI  
**MILAGROS RUBIO SALVATIERRA**  
ANDREAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa. 4. puntua aldatzen da. Honako testu hau izanen luke:

4. "...Oro har, gomendagarria da epe hori hiru urte baino gutxiagokoa ez izatea".

Zioak: Zenbait egoeratan, litekeena da alderdiek hiru urte baino gutxiagoko iraupena nahi izatea harrerarentzat.

## 22. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI  
**MILAGROS RUBIO SALVATIERRA**  
ANDREAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa. 5. puntua aldatzen da. Honako testu hau izanen luke:

5. Kendu eginen da "auzoekiko harreman onak" esapidea.

Zioak: Gure ustez, hori ez da bateraezina harrera behar bezala gauzatzearekin.

## 23. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI  
**MILAGROS RUBIO SALVATIERRA**  
ANDREAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa. 6. puntua aldatzen da. Honako testu hau izanen luke:

6. Familiako harrera egiten den etxebizitza iris-teko erraza den hiri edo herri ingurune batean egonen da, eta behar diren baldintza higieniko eta osasunekoak, ur korrontea, argi elektrikoa eta komuna izanen ditu; ahal dela, ez du izanen pertsona zaharraren ibilera zailduko duen arkitektura oztoporik ez eta trabarik ere. Horretarako, Gizarte Ongizate Departamentuak laguntza publikoak emanen ditu, arkitektura oztopo horiek kentzeko,

beranduago eginen den erregelamendu bidezko garapen baten bitartez.

Zioak: Etxebizitza askok arkitektura oztopoak dauzkate, batez ere landa-ingurunean, igogailurik gabeko famili bakarreko etxebizitzetan. Gure iritziz, horiek ezin dira alde batera utzi, eta beharrezkoa da oztopoak kentzeko laguntza publikoak bideratzea.

## 24. ZUZENKETA

### FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK AURKEZTUA

5. artikuluari beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa. Testu hau izanen luke:

“Espedienteen tramitazioa, bai pertsona zaharren eskabidearena bai familiarena ere, Oinarriko Gizarte Zerbitzuek eginen dute, eta foru Gobernuako Gizarte Ongizate Departamentura bidaliko dira, interesdunek sinatuak, behar diren txosten teknikoekin eta eskaturiko gainerako dokumentazioarekin batera.”

Zioak: Eskabideak tramitatzeko organo esku-dunak zehaztu beharra.

## 25. ZUZENKETA

### FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK AURKEZTUA

5. artikuluari beste idatz-zati batzuk gehitzeko zuzenketa. Testu hau izanen lukete:

“7. Oinarriko gizarte zerbitzuek harrera eskatu duten pertsona zaharrak zaintzeko egokien jotzen dituzten familia hartzaileak hautatu eta proposatuko dizkiote Gizarte Ongizate Departamentuari. Horretarako, laguntza-zerbitzu tekniko bat izanen dute.

8. Egokitasun-adierazpena eginen da familia hartzaileei buruz eta pertsona zaharrei eta/edo kasuan kasuko harrerari buruz, eta eginen da txosten teknikoak, hala psikologikoak nola sozialak, eman ondoren. Horretarako, oinarriko gizarte-zerbitzuek Gizarte Ongizate Departamentuak eskainitako harrerari laguntzeko zerbitzu berariazko bat izanen dute.

9. Aipatutako txosten teknikoetatik ondorioztatzen bada familia hartzaileak edo harrera eskatu duten pertsonak ez direla egokiak harrerarako, eskabide hori behin betiko ezetsia geldituko da.

10. Txosten teknikoetatik ondorioztatuko balitz egokitasunik eza kasu zehatzerako dela, baina beste harrera batzuk posible direla, eskabideak itxaron zerrendara pasako dira.

11. Harrerarako egokitzat deklaraturiko familia hartzaileen eta pertsona zaharren eskabideen zerrenda Nafarroako Gobernuako Ongizate Departamentuak zentralizatu eta gaurkotuko du.”

Zioak: Proposatutako testua hobetzea, egokitasun-adierazpena nahitaezkoa izan dadila ezarritik, guztion onerako.

### 6. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

## 26. ZUZENKETA

### IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua kentzeko zuzenketa. Eraketaren baldintza formalak.

Zioak: Gure ustez, bai hartzaile eta hartutakoen betekizunak bai eraketaren betekizun formalak arautu behar dira foru lege hau garatzen duen araudi batean, hala Plangintza Zerbitzutik nola Familiaren eta Sektore Zerbitzuen Zuzendariordetarik, Gizarte Ongizatean.

## 27. ZUZENKETA

### IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

Artikulu berri bat gehitzea. Hona testua:

“6. artikulua. Famili Harrerako Hitzarmen edo Akordioa.

Nafarroako Gobernuak gizarte-zerbitzu berri hori garatzeko oinarriak arautuko ditu. Zerbitzu horren xedea da pertsona zaharrak bereak ez diren familietan ordainsari baten truke hartzeari bide ematea. Oinarri horiek alderdi hauek jaso beharko dituzte:

1. Harrera hitzarmen edo akordioa formalizatu aurreko betekizunak zehaztea. Horiek barnean hartu beharko dituzte pertsona hartzaile eta hartuei buruzko azterlan teknikoak, pertsona hartuen gaitasunen arabera zehaztea zerbitzu-ematea, haien dirusarrerara eta ondarearen araberrako

ordainsariak zehaztea, harreran atzera egiteko arrazoiak eta eska daitezkeen dirulaguntzak.

2. Toki administrazioen esku-hartzea hitzarmen edo akordioaren formalizazioan, eta pertsona zaharra hartua dagoen toki-ingurunean zerbitzuak dituen baldintzen jarraipena egitea, hartutako pertsona zaharraren osasun psikofisikoa eta ongizatea uneoro zaintzeko.

3. Famili harrerako zerbitzuaren ikuskapena, kautelazko neurrien ezarpena, hitzarturiko betebeharrak betetzen ez direnerako zehapenak, eta pertsona zaharren famili harrerako prozesuaren kanpo-kontrola gauzatzeko oinarritzotzat jotzen diren beste gai batzuk.

Zioak: Hirugarren adinerako gizarte-zerbitzu publikoa den aldetik, oinarritzokoak diren zenbait kontu zehaztea beharrezkoa dauka. Kontu horiek finkatu behar dira zerbitzu berri honen oinarrien araubidean, pertsona zaharrak ordainsaria ematea ekarriko duen hitzarmen edo akordioa ez dadin egin administrazio publikoek haren berri izan gabe eta pertsona zaharra babesgabatasun-egoera arriskutsu batean ipiniz, zeren eta horrek bide erraza emanen bailieke larriak izan daitezkeen abusuei, ezgaitasun fisiko edo adimenekoa daukaten edo beranduago okerrera egiten duten pertsona zaharren kasuan; erabateko babesgabatasunean geratuko lirarteke.

## 28. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6.2 artikuluar aurkezturiko zuzenketa

2. idatz-zatia kentzea.

Zioak: Harrera formalizatzeko eskriturak argi eta garbi jaso beharko ditu hileroko ordainsariak, baina dohaintzaren zenbatekoa a priori zenbates-tea zaila gertatzen da.

## 29. ZUZENKETA

### FORU PARLAMENTARI

#### BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

#### ANDREAK AURKEZTUA

6. artikuluko 2. idatz-zatia ordeztuko zuzenketa.

Hona testu berria:

“2. Eskritura publikoak adierazi behar ditu alderdi bakoitzari dagozkion eskubide eta betebeharrak”.

Zioak: Proposatutako testua hobetzea, borondatez eginiko zerbitzuaren truke emandako era guztietako dohaintzak kenduz.

## 30. ZUZENKETA

### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6.2 artikuluar aurkezturiko zuzenketa.

Testua beste honekin ordeztzea:

“Harrera-kontratuak zehaztasunez adieraziko ditu alderdi bakoitzari dagozkion kontraprestazio, eskubide eta betebeharrak. Dohaintzak edo jaraunspen-xedapeneko bestelako egintza batzuk jasotzen dituzten estipulazioetan aintzat hartuko dira Nafarroako Foru Zuzenbide Zibileko Bilduma-ko 149. Legeak ematen dituen ahalmenak. Halaber, harreran hartua den pertsonari kasu guztietan erreserbatuko zaio bere ondasunak administratze-ko daukan eskubidea.”

Zioak: Zorroztasunez begiratu behar da baldintza ekonomikoak ezein kasutan ez daitezen abuzuzkoak izan edo arau honetan bildutako formula-ra jo behar duen pertsona ez dezaten behartu testamentua egitean askatasunez xedatzeko duen eskubidea –nafar izatearen bere foru-izaeraren ondoriozkoa– mugatzera.

## 31. ZUZENKETA

### FORU PARLAMENTARI

#### BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

#### ANDREAK AURKEZTUA

6. artikuluko 3. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurkezturiko gainerako zuzenketekin koherentzia izatearren, diruzkoa ez den edozein kontraprestazio kentzeko.

## 32. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6.3 artikuluar aurkezturiko zuzenketa

3. idatz-zatia kentzea.

Zioak: Eduki zehazgabe eta konplexua.



**7. ARTIKULUARI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

**33. ZUZENKETA**

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

7. artikulua kentzeko zuzenketa. Harremana amaitzeko arrazoiak.

Zioak: Gure ustez, harremana amaitzeko arrazoen jarraipena eta erregistroa, ituna edo erabakia formalizatzeko aurretiazko beste baldintza batzuen bezala, foru lege honetan zerbitzu teknikoetatik abiatu behar direla, bai Gizarte Ongizatearen Plangintza Zerbitzuan bai Familiaren eta Sektore Zerbitzuen Zuzendariordeztan, horiek zehaztu beharko baitituzte hirugarren adinekoentzako gizarte zerbitzu berri honen oinarriak.

**34. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

7.2 artikulua aldatzeko zuzenketa

2. idatz-zatia kentzea.

Zioak: Zein botere motaz ari den eta zertarako eman diren.

**35. ZUZENKETA**

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa

Gaztelaniazko testuan, 7. artikuluari 1 zenbakia gehitzea "La acogida se extingue..." esaldiaren aurrean.

Zioak: Legearen testuan proposaturiko sistematikan du eragina.

**8. ARTIKULUARI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

**36. ZUZENKETA**

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

8. artikulua, "Harrera amaitzearen ondorioak kontratugileen bizitzan", kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, harremana amaitzeko arrazoen eta ondorioen jarraipena eta erregistroa, ituna edo erabakia formalizatzeko aurretiazko beste baldintza batzuen bezala, foru lege honetan zerbitzu teknikoetatik abiatu behar dira, bai Gizarte Ongizatearen Plangintza Zerbitzuan bai Familiaren eta Sektore Zerbitzuen Zuzendariordeztan, horiek zehaztu beharko baitituzte hirugarren adinekoentzako gizarte zerbitzu berri honen oinarriak.

**37. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

8. artikulua aldatzeko zuzenketa, 2 eta 3. idatz-zatietan.

8. artikuluko 2. idatz-zatian honakoa kentzea:

"Aldeak ados jartzen ez badira"

8. artikuluko 3. idatz-zatian honakoa kentzea:

"Aldeak ados jartzen ez badira".

Zioak: Araudi honen barruan baldin badago, beti izanen dela adostasuna suposatzen da, bestela ez gara harreraz mintzatzen ari. Kasu hauek bestelako ikuspuntu eta bestelako testua eskatzen dute.

**38. ZUZENKETA**

**FORU PARLAMENTARI  
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL  
ANDREAK AURKEZTUA**

8. artikuluko 5. idatz-zatian aldatzeko zuzenketa.

Erdarazko testuan "...si procede..." kentzea proposatzen da.

Zioak: Gure ustez beti izaten da bidezkoa horretarako sortutako erregistroari jakinaraztea harreraren amaiera.

**9. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

**39. ZUZENKETA**

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua, "Harremana amaitzeko arrazoiak" kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurreko zuzenketen arrazoi berberak.

**40. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Bi pertsonetako bat hilez gero etxebizitza erabiltzeko modua bi alderdien arteko harrerarako kontratuan erabaki beharko da. Ez dirudi logikoa gai hori lege izaeraz arautzea.

**10. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

**41. ZUZENKETA**

FORU PARLAMENTARI  
**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**  
ANDREAK AURKEZTUA

10. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Familia hartzaileentzat dirutakoak ez diren gainerako kontraprestazio guztiak kentzeko eskatzen duten aurreko zuzenketekin bat.

**42. ZUZENKETA**

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua, "Testamentu gabeko oinordetzaren ondorioak", kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez du zentzurik Nafarroara ekartzeak Kataluniako lehendabiziko legearen 10 eta 11. artikulua, ez baitute zerikusirik testamentuen inguruko gaiak zuzentzen dituen errealitate juridikoarekin. Nafarroak bere foru legeak ditu, eta testamentua egiteko erabateko askatasuna dago aurreikusirik bertan.

Kontraprestazio ekonomikoen gaia prezio publikoen artean sartu behar da eta zerbitzu berri hau garatzeko oinarrietan aurreikusirik egon; gai honek lotura izanen du hirugarren adinekoentzako bizitokiaren arloko gainerako baliabideei buruzko arauekin.

**43. ZUZENKETA**

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Familian hartzeko formula hau administrazioak babesturiko kontratu baten gisa ikusten dugunez, administrazioak, zaharrei ematen zaien laguntza zaintzeko esku hartze sozialerako ahalmenaz baliatuz, horren baldintzak ikuskatuko ditu abusuzko egoerarik ez gertatzeko; ez dirudi beraz komenigarria denik irabaziak lortzeko asmorik piztea, Nafarroako zuzenbide zibilak pertsona orori herentziaz erabakitzeke ematen dion askatasuna kaltetu dezaketanak.

**44. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Foru Berria aldatzen du.

**11. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

**45. ZUZENKETA**

FORU PARLAMENTARI  
**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**  
ANDREAK AURKEZTUA

11. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Familia hartzaileentzat dirutakoak ez diren gainerako kontraprestazio guztiak kentzeko eskatzen duten aurreko zuzenketekin bat.

**46. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**

## PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

11. artikulua, "Testamentu bidezko oinorde-tza", kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez du zentzurik Nafarroara ekartzeak Kataluniako lehendabiziko legearen 10 eta 11. artikulua, ez baitute zerikusirik testamentuen inguruko gaiak zuzentzen dituen errealitate juridikoarekin. Nafarroak bere foru legeak ditu, eta testamentua egiteko erabateko askatasuna dago aurreikusirik bertan.

Kontraprestazio ekonomikoen gaia prezio publikoen artean sartu behar da eta zerbitzu berri hau garatzeko oinarrietan aurreikusirik egon; gai honek lotura izanen du hirugarren adinekoentzako bizitokiaren arloko gainerako baliabideei buruzko arauekin.

**47. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA**

## PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

11.1 artikulua aldatzeko zuzenketa

Aldaketa egiteko zuzenketa

Zioak: Familian hartzeko formula hau administrazioak babesturiko kontratu baten gisa ikusten dugunez, administrazioak, zaharrei ematen zaien laguntza zaintzeko esku hartze sozialerako ahalmenaz baliatuz, horren baldintzak ikuskatuko ditu abusuzko egoerarik ez gertatzeko; ez dirudi beraz komenigarria denik irabaziak lortzeko asmorik piztea, Nafarroako zuzenbide zibilak pertsona orori herentziaz erabakitzeke ematen dion askatasuna kaltetu dezaketenak.

**48. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**

## PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

11. artikulua aldatzeko zuzenketa

1. idatz-zatia kentzea.

Zioak: Foru Berrian testamentua emateko ezartzen den askatasuna baldintzatzen du.

**49. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**

## PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

11. artikulua aldatzeko zuzenketa

2. idatz-zatia kentzea.

Zioak: Errazagoa da prezioa finkatzea kontratuan eta, beharrezkoa izanez gero, ondasunen kargurako zor-aitorpen bat izenpetzea, oinordeek ordainduko dutena.

**50. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA**

## PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

11. artikulua aldatzeko zuzenketa

2. idatz-zatiaren zenbakia kentzea (testua osorik utzirik).

Zioak: Aurreko zuzenketa onartuz gero, puntu bakarra izanen litzateke.

**12. ARTIKULUARI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****51. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA**

## PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aurreikusi gabeko artikulua bat, 12 zenbakikoa, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

Gobernuak prestatzen duen plan gerontologikoaren edukietako bat izanen da pertsona zaharrrak familian hartzearen gaineko araudia; araudi horretako abiapuntua izanen da harrera dela formula bat, zeinak bete behar duen helburu soziala-beren buruaz baliatzeko zailtasunak dituzten adineko pertsonen baldintza batzuk, hau da, familian integratzea eta gizartearen parte izaten segitzea, eskaintzea- aintzat hartzen duen, atxikirik duen kontratu askatasuna errespetatzeaz batera.

Zioak: Plan gerontologikoan zaharrei laguntza emateko formula guztiak agertu beharko dira.

**13. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

**52. ZUZENKETA**

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

13. artikulua, "Onuradunen hautaketa, uko egitea eta finantziazioa", kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurreko zuzenketen arrazoi berberak.

**53. ZUZENKETA**

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Kapitulu bat gehitzeko zuzenketa. III. kapitulu. Familia harreraren sistema administrazio publikoak antolatzea.

Zioak: Artikulu horretatik aurrera gaia ez da amaitzeko arrazoiak, baizik eta foru administrazioaren eta toki entitateen (udalak edo oinarritzko gizarte zerbitzuen mankomunitateak) egiturak bete behar dituen eskumenetan oinarriturik arauak ematea zaharrei laguntzeko zerbitzua hau babesteko.

**54. ZUZENKETA**

FORU PARLAMENTARI  
**MILAGROS RUBIO SALVATIERRA**  
ANDREAK AURKEZTUA

13. artikulua aldatzeko zuzenketa. 1, 2 eta 3. idatz-zatiak aldatu, ondotik ematen den testuarekin, eta 4. idatz-zatia gehitzea proposatzen da.

1. Onuradunen hautaketa. Administrazioak ebatziko ditu interesatuen eskaerak, eta horretarako pertsona zaharren beharrak eta familia hartzailearen ezaugarriak bateratu beharko ditu, zenbait alderdi aintzat hartuta, hala nola, pertsona zaharrak eta familiak bata bestearikiko onarpena ematea, gizarte zerbitzuen aldeko txostena, familiaren eta hartzea eskatzen duen pertsonaren txosten medikoak, eskatzailearen eta familiaren arteko bateragarritasuna eta hizkuntza aldetiko hurbiltasuna, eta pertsona zaharra haren ohiko ingurunetik mugitzea desegokia izatea.

2. Eskaerei uko egiteko arrazoiak hauexek dira: eskatzailearen adimeneko gaixotasuna, pertsona zaharrak bizi behar duen lojamenduaren

desegokitasuna, familia hartzailearen osasuna, eskatzailearen eta familia hartzailearen arteko bateraezintasuna.

3. Finantzaketa. Gizarte Ongizatearen Departamentuak laguntza zehatzak finkatuko ditu hartutako pertsonentzat, beste lojamendu mota batzuetarako ere ezarritakoen ildotik, pertsona bakoitzaren errenta eta baldintza eta premia beraiazkoak kontuan harturik.

4. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua izanen da eskabideei baimena eman edo uko egitearen azken erantzulea eta, horrez gain, aldizkako jarraipena egiteaz ere, egiaztatu ahal izateko harreraren itunean ezarritako baldintzak behar bezala betetzen direla eta abusurik edo arazorik gerta ez dadin.

Zioak: Gure ustez desadostasun ideologikoez edo erlijiosoez ez dute zertan ekarri bateraezintasunik. Hori aztertzeko beharrezkoa izanen litzateke hartzaileen eta hartutakoen ezaugarri orokorrrak aintzat hartzea. Era berean, gure ustez pertsona bakoitzaren errenta maila eta inguruabar eta behar zehatzak hartu behar dira kontuan laguntzak ezartzerakoan. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren ardura izan behar da harrera itunaren baldintzak behar bezala betetzen direla bermatzea eta bera izan behar da eskabideak onartu edo ukatzeko erantzulea, oinarritzko gizarte zerbitzuen txostena jaso ondoren.

TITULUARI  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

**55. ZUZENKETA**

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Legearen titulua aldatzeko zuzenketa.

"Hartzea" hitzaren ordez "familiar hartzea" hitzak jartzea.

Zioak: "Familiar hartzea" esamoldea erabili izan da gure ordenamendu juridikoan norberaren familia ez den batean aldi baterako edo modu iraunkorrean hartutako arreta eta laguntzaren errealitatea definitzeko, bai Nafarroako Foru zuzenbide zibilaren bilduman bai Nafarroako eta Estatuko arauetan, haurrak familiar hartzea erregulatzean.

**56. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Legearen titulua aldatzeko zuzenketa.

Erdarazko tituluak dioena honako testu honen bidez ordeztea:

“Proposición de Ley Foral de acogimiento de personas mayores”.

Zioak: Errege Akademiaren hiztegiak “acogimiento” izenekoan sartzen direnak eta “acogidas” bereizten ditu, eta azken hauei ñabardura hau eransten die: “persona pobre y desvalida que ha de ser atendida en establecimiento de beneficencia”. Ez da egokia kasu honetan.

**XEDAPEN GEHIGARRIARI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****57. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bakarra aldatzeko zuzenketa.

Eduki honekin ordeztea:

“Familietan hartutako pertsona zaharren erregistroa.

Nafarroako Gobernuak familietan hartutako pertsona zaharren erregistroa sortuko du, Gizarte Ongizatearen Institutuaren menpe. Bertan erregistratuko dira pertsona zaharrak beraienak ez diren familietan kontraprestazio ekonomikoarekin hartzeko Nafarroako Foru Komunitatean formalizaturiko itun edo akordioak, administrazio publiko eskudunak esku hartzen duenean horietan.

Erregistroan bilduko dira gainera hartzaileen eta hartutakoen bajak, bertan behera utzitako harrerak eta horren arrazoiak, bai eta egokitzeak jotzen diren bestelako datu garrantzitsu guztiak.”

Zioak: Beharrezkoa da erregistro bat familietan hartutako pertsona zaharren kasuak kontrolatzeko, harrera hori norberarena ez den familian egiten denean ordainketa bat tartean dela, kasu horretan administrazio publikoak esku hartu behar duelako. Erregistro baten erregulazioa funtsezkoa da hirugarren adinekoentzako gizarte zerbitzu mota honen kontrolerako.

**ZIOEN AZALPENARI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****58. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpenaren testua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez gaude ados edukari emandako esanahi orokorrarekin, arautu nahi den baliabidearen inguruan nahasmena eragin dezakeelakoan.

**59. ZUZENKETA****FORU PARLAMENTARI****BEGOÑA ERRAZTI ESNAL****ANDREAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko 5. lerrokada kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez ez da beharrezkoa aipatzea Nafarroako zenbait lurralde esparru, lege honek Nafarroako lurralde osoa hartu behar duelako.

**60. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa.

“Sistema horretara jende askok jotzen ez duen arren...” hitzetatik hasita zioen azalpenaren amaiera bitarteko zatia kentzea.

Zioak: Lege proposamenari aurkeztu dizkiogun zuzenketen bidez eman nahi izan ditugun esanahia eta aldaketak sartzearen.

**61. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa.

Eduki hau gehitzea zioen azalpenari:

Familia zabalaren, pertsonen arteko harremanen, auzoen edo herrien esparruetan pertsona zaharrak aldi baterako edo modu iraunkorrean hartzea kuantifikatu gabeko baliabide soziala da, ez baitago daturik ez erregistrorik administrazio

publikoetan, baina jakina da baliabide hori errealitate bat dela, herrietan nola hirietan.

Horregatik, bidezkoa da arautzea norberarena ez den familia esparruetan familiako elkarbizitza egoerak arautzea hartzaileek dirua jasotzen dutenean hartutako pertsonengandik, nahiz eta elkarbizitza hori loturik egon adiskidetasunari, auzo hurbiltasunari edo zaharrari, ongizatea handiagoa izan dezan, familia tratua eman nahiari.

Lege honen xedea da norberaren familian ez den batean zaharrei emandako zaintza eta laguntzaz bestelako egoera hauek arautzeko oinarriak ezartzea, Foru Komunitatean erabilgarri dauden bizitokirako zerbitzu guztien artean adineko pertsonak libreki aukeratu dezaketen beste gizarte zerbitzu publiko bat, laguntza pertsonalizatua eta familiarra haien elkarbizitza ingurunetik urrundu gabe emateko helburua duen zerbitzu bat alegia.

Zioak: Lege proposamenari aurkeztu dizkiogun zuzenketen bidez eman nahi izan ditugun aldaketak sartzearren.

## 62. ZUZENKETA

### FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Erdarazko testuan “acogida” hitzaren orde “acogimiento” hitza jartzea proposatzen da proposamen osoan.

Zioak: Terminologia egokitzea babes erakunde hau arautzen duten testuetan dagoenera.

## 63. ZUZENKETA

### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

egungo 5. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

“Sistema horretara jende askok jotzen ez duen arren, herri eta baserri ingurunean bizi diren pertsona zahar batzuentzat...”

“herri eta baserri ingurunean bizi diren” hitzak kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Familian hartzeko formulak ez da zertan mugatu herri eta baserri ingurunetara.

## 64. ZUZENKETA

### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Laugarren lerrokada gehitzeko zuzenketa

“Pertsona zaharrei elkartasuna eta sostengua emateko balore familiarak oso erroturik daude gure gizartean eta beste modu batean heldu behar izan zaie emakumeak lan munduan kopuru nabarmenean sartzearen ondorioz. Horregatik ezinbestekoa zen errealitate berriak kontuan hartu eta estatu mailan arautzea, familia eta lanari, langileen familia-bizitza eta lan-bizitza bateratzeari buruzko azaroaren 5eko 39/1999 Legearen bidez, eszedentziak edo lanaldi murriztuak aurreikusirik, familia osatzen duten pertsona guztiek, ez soilik emakumeek, aukera izan dezaten senide zaharrek zaintzeko.”

Zioak: Beharrezkoa dirudi aipatzea familiako elkarbizitza aldarazi duten arrazoi guztiak.

## Foru Lege proposamena, pertsona zaharrak hartzeari buruzkoa

### GIZARTE GAIETAKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Gizarte Gaietako Batzordeak pertsona zaharrak hartzeari buruzko Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proposamen hori, 2002ko otsailaren 19ko 12. Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, Osoko Bilkuran, zuzenketa hauek defendatzen ahalko dira:

– 22. zuzenketa, Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua.

– 29. zuzenketa, Eusko Alkartasuna/Eusko alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztua.

Iruñean, 2002ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### Irizpena

#### **Pertsona zaharrak familian hartzeari buruzko Foru Lege proposamena**

##### ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Parlamentuak pertsona zaharrei laguntzeari buruzko plangintza-tresna gisa onetsi zuen 1997-2000 eperako Nafarroako Plan Gerontologikoa, eta helburu zuen Nafarroako Foru Komunitatean pertsona zaharrentzako laguntza-aren esparruan aztertutako edo aplikatzen hasitako neurri guztiak koordinatzea.

Plan horrek biltzen zituen 1993an Kontuen Ganbarak hirugarren adinari buruz egindako fiskalizazio txostenean egindako gomendioak, eta bizikidetasun-modu ezberdinei nahiz haien babes juridiko eta ekonomikoari buruzko aipamenak egiten zituen.

Nafarroako gaur egungo gizarteak elkarri laguntzeko harremanak barnean hartzen dituzten bizikidetasun-egoerak agertzen ditu; bereziki, pertsona zaharrei dagokienez. Horrela, haiek dauzkaten zailtasunak gainditzea bilatzen da.

Pertsona zaharrei elkartasuna eta sostengua emateko balore familiarak oso erroturik daude gure gizartean eta beste modu batean heldu behar izan zaie emakumeak lan munduan kopuru

nabarmenean sartzearen ondorioz. Horregatik ezinbestekoa zen errealitate hau kontuan hartu eta estatuan arautzea, eta hala eginda Langileen familia-bizitza eta lan-bizitza bateratzeari buruzko azaroaren 5eko 39/1999 Legearen bidez, eszedentziak edo lanaldi murriztuak aurreikusten baititu, familia osatzen duten pertsona guztiek, ez soilik emakumeek, aukera izan dezaten senide zaharrak zaintzeko.

Pertsona bati familian hartuz laguntzeko modu hori, ukiturikoek berek pentsio moduko egoeratzat hartzen dute. Horrelakoetan abusuak edo babesgabeziak gerta daitezke; hori dela-eta, normalean kanpoko bitartekotzarik gabe alderdiek iritsitako akordio baten bidez hasten den harreman hori arautzea beharrezkoa da.

Hori guztia dela-eta, ikusi da egoki dela bizikidetasun-egoerak arautzea pertsona batzuk etxebizitza berean bizi direnean, familia bat osatu gabe, alboko lineatik urruneko ahaide izanik edo, soilik, adiskidetasun edo elkartasunagatik baturik, eta ahulenari laguntzeko eta bizikidetasuna iraunkorra izateko asmoa dutenean.

Zehazki, pertsona batek edo bikote batek beste pertsona bati edo batzuei, pertsona batzuen eta euren ondorengoen artean sortzen diren harremanen antzeko baldintzetan, etxean hartzeko eginiko eskaintzaren ondorioz sortzen den bizikidetasuna arautzen da. Bizitzaren luzapena eta jaiotza-tasaren beherakada direla-eta, biztanleria zahartzen doa pixkanaka, eta bizikidetasun-mota hori egituratuz arautuko duen lege babes-emaile bat soluzioa izan daiteke bizikidetasun-mota horren aldeko hautua egiten duten pertsona zaharren ongizate orokorrerako, haien zailtasun ekonomiko eta sozialak konpondu ditzake eta pertsona horiek instituzio geriatrikoetan sartzeari bestelako aukera bat ekar dezake.

Foru lege honek bi kapitulu ditu ardatz: lehen zatia pertsona zaharrak hartzeko hitzarmena ezartzeari buruzkoa da; bigarrenak pertsona zaharra hartzearen amaiera eta amaiera horren ondorioak aztertzen ditu. Xedapen gehigarri bat eta amaierako xedapen bat ere baditu.

Lehen edo bigarren mailako ahaidetasun gradukoak ez diren familiaren, pertsonen arteko harremanen, auzoen edo herrien esparruetan pertsona zaharrak aldi baterako edo modu iraunkorrean hartzea kuantifikatu gabeko baliabide soziala da, ez baitago daturik ez erregistrorik

administrazio publikoetan, baina jakina da baliabide hori errealitate bat dela, herrietan nola hirietan.

Horregatik, bidezkoa da arautzea norberarena ez den familia esparruetan familiako elkarbizitza egoerak arautzea hartzaileek dirua jasotzen dutenean hartutako pertsonengandik, nahiz eta elkarbizitza hori loturik egon adiskidetasunari, auzo hurbiltasunari edo zaharrari, ongizatea handiagoa izan dezan, familia tratua eman nahiari.

Lege honen xedea da norberaren familian ez den batean zaharrei emandako zaintza eta laguntzaz bestelako egoera hauek arautzeko oinarriak ezartzea, Foru Komunitatean erabilgarri dauden bizitokirako zerbitzu guztien artean adineko pertsonak libreki aukeratu dezaketen beste gizarte zerbitzu publiko bat, laguntza pertsonalizatua eta familiarra haien elkarbizitza ingurunetik urrundu gabe emateko helburua duen zerbitzu bat alegia.

## **I. KAPITULUA**

### **Pertsona helduen harrera**

#### **1. artikulua.** Aplikazio eremua.

Foru lege hau aplikatuko zaie Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan egiten diren familiako harrerei, pertsona zaharren eta familien, bikoteen edo bakarrik bizi diren pertsonen artekoiei.

#### **2. artikulua.** Kontzeptua.

Familiako harrera da pertsona zaharrei familia-ko zainketa arrunt eta pertsonalizatuak ematea; horren bidez, haien bizi kalitatea hobetzen da eta modua ematen zaie bizitza independente bat izateko ohiko ingurune baten baitan. Halakoetan, ondoko irizpideei jarraituko zaie:

1. Pertsona hartzaileak eta hartutako pertsonak ohiko etxebizitza berean biziko dira, pertsona hartzaileena nahiz hartutako pertsonena izan, lehenbizikoek bigarrenak zaintzeko, jaten emateko, laguntza emateko, haien ongizate orokorraren alde egiteko eta gaixorik daudenean zaintzeko.

2. Pertsona hartzaileek eta hartutako pertsonak laguntza emanen diote elkarri, eta etxeko lanak hitzartutako moduan partekatuko dituzte, betiere alderdi bakoitzaren aukera errealean arabe-ra.

3. Prestazio honetarako prezio bat ezarriko da, pertsona zaharrentzako zentro eta zerbitzuen esparruaren barnekoa, eta laguntzak emanen zaizkie osoki ordaindu ezin dutenei; halaber, zorra ezarriko da.

4. Pertsona hartzaileek tutoretza eratzea sus-tatu ahalko dute, baldin eta hartutako pertsonak haren menpe jartzeko egoeran badaude.

#### **5. (KENDUTA).**

#### **3. artikulua.** Modalitateak.

1. Familiako harrera izan ahalko da aldi bate-rakoa edo iraunkorra, famili bizikidetasuneko modalitate hau aukeratzen duen pertsona zahar-rak erabakitakoaren arabera, eta ikuskapenaren ardura daukaten gizarte-zerbitzuen adostasuna beharko da.

2. Behin betiko harrera. Pertsona zaharren egoerak edo haren borondateak halakorik kome-nigarri egiten dutenean; eskualdeko gizarte zerbi-tzuek aurretiaz aldeko txostena eman beharko dute horretarako.

#### **4. artikulua.** Harrera-hitzarmena.

1. Harrera-hitzarmena da hirurogeita bost urte baino gehiagoko pertsona bat pertsona bati edo familia bati lotzea, ahaidetasun harremanen antzeko baldintzetan eta behar duten laguntza emateko betebeharrarekin.

2. Harrera-hitzarmenaren bitartez hartzaileak edo hartzaileek pertsona bat bakarra hartu ahal izanen dute, salbu eta behar bezala kreditatu beharko diren aparteko egoeretan. Halakoetan, harrerak bi pertsonak hartuko ditu.

3. Harrera-hitzarmenak ez dakar berekin onda-sunen legezko administrazioa ez eta hartzaileak hartutako pertsonen legezko ordezkariak izatea ere.

4. Harrera-hitzarmen bat izenpetu nahi duten pertsonak administrazioaren baimena lortu behar-ko dute. Baimenaren ebazpena ezinbesteko bal-dintza izanen da harrera-hitzarmena foru lege honen bitartez sorturiko erregistroan inskribatze-ko.

5. Administrazioak aldizka hitzarmena egoki betetzen ote den begiratu beharko du, bai eta har-tutako pertsonen baldintzak ere; bereziki, perso-na horien ongizate fisikoa, psikikoa eta soziala.

6. Hartutako pertsonaren osasuna, segurtasu-na eta ongizate psikikoa harrera-baldintzek meha-txaturik edo konprometiturik badaude, edo harre-rarako eskaturiko baldintzak modu larrian urratzen badira, administrazioak egoki jotzen dituen kaute-lazko neurriak hartu ahal izanen ditu.

7. Harrera-hitzarmenak nahitaez jaso beharko duen edukia erregelamenduz ezarriko da.

#### **4 bis. artikulua.** Harrera, gizarte-zerbitzu gisa.

Foru lege honek araututako pertsona zaharren harrera antolatzen da erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzu gisa, erabiltzaileei familia-giroko



laguntza pertsonalizatu egokia eta haien erkidego-ingurunean egotea bermatzeko.

**4 ter. artikulua.** Foru lege hau garatu eta aplikatzeko eskudun den administrazioa.

1. Foru administrazioari dagokio, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuaren bitartez, foru lege hau garatu eta aplikatzea eta zerbitzua- ren plangintza, kudeaketaren kontrola, erregistroa, ikuskaritza, prezio publikoen zehaztea eta hartutako pertsona zaharren ongizate-baldintzak bermatzeko esku-hartze babeslearen eginkizunak esleitzea.

2. Nafarroako Gobernuak Nafarroako administrazio publiko ezberdinen eskumenak finkatuko ditu zerbitzu hori emateari dagokionez, zerbitzua eskatzen duten herritar zaharrei hurbiltzeko; halaber, botere publikoen babes-ekintza ezarriko du.

**5. artikulua.** Hartzaileen eta hartutakoen bete- kizunak eta hautaketa.

1. Harrerak eskatzen du hartzaileek eta hartu- tako pertsonak ez edukitzea haien artean bigarren gradu bitarteko ahaidetasunik, adindunak izatea eta jarduteko gaitasun osoa izatea, edo hartutako pertsonak dagokienez gaitasun hori haien legezko ordezkarien, haien kuratela duen pertsonaren edo testamentuz besteko tutoretza izendatzeko agirian hautaturiko pertsonen baimenaz ordezteko edo osatzea. Borondate ordeztu edo osatuaren kasuan, epailearen baimena beharko da, eta har- tutako pertsonari edo pertsonak entzun beharko zaie, ezaguera nahikoa badute.

2. Pertsona zaharren adina ezin da hirurogei urte baino gutxiagokoa izan, eta pertsona hartzai- leak edo hartzaileak osasun-egoera egokia izan behar du pertsona hartuak edo hartuek beharrez- ko dituzten zainketak edo/eta laguntzak eskaini ahal izateko.

3. (KENDUTA).

4. Pertsona hartzaileak edo pertsona hartzaile- ek betiere hartutako pertsonaren edo pertsonen onura bilatuz jardunen dute, harrera-hitzarmenean ezarritako epean. Oro har, gomendagarria da epe hori hiru urte baino gutxiagokoa ez izatea.

Familia hartzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

A) Pertsonalak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko etxebizitza baten titularrak izatea, jabetzapean nahiz alokai- ruan.

2. Zaintzaile nagusiak 25 eta 65 urte bitarte izatea, osasun ona izatea eta etxeko lan arruntei

aurre egitea galaraziko dioten eragozpenik ez iza- tea.

Hala eta guztiz ere, hartzaile izaten jarraitu ahal izanen dute, administrazioak horretarako bai- mena emanda, 65 urte baino gehiago izan eta zerbitzua ematen jarraitzeko baldintzetan dauden pertsonak, betiere onuradunak hala nahi badu eta adina denean zerbitzua baldintza egokietan ema- ten jarraitzeko betetzen ez duen baldintza baka- rra.

Salbuespenak eragina galduko du hartzailea laguntza egokia emateko baldintzetan ez dagoela kreditatzen denean. Adinaren salbuespena ezin izanen da aplikatu familiako beste kideren bat zer- bitzua ematen jarraitzeko prest dagoenean, baldin eta harrerako titulartzat hartzea eskatzen badu.

– Hartzaile nagusiak zerbitzua emateko duen denbora, bai eta harreraren ezinbestekoak diren laguntzak emateko daukan aurretiko joera.

– Familia bakoitzak ezin izanen ditu bi perso- na baino gehiago hartu, salbu eta behar bezala kreditaturiko aparteko egoeretan.

– Aurretik ez amaitu izana harrera-kontratu bat ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik.

5. Familia hartzaileak Nafarroan eduki behar du bere ohiko etxebizitza, eta behar den gaitasu- na eta aurretiko jarrera izanen du pertsona hel- duekiko trataturako, eta egonkortasun familiarra, auzoekiko harreman onak eta behar den osasun ona eta denbora pertsona helduarekin egon ahal izateko.

6. Familiako harrera egiten den etxebizitza iris- teko erraza den hiri edo herri ingurune batean egongo da, eta behar diren baldintza higieniko eta osasunezkoak, ur korrontea, argi elektrikoa eta komuna izanen ditu; ez du izanen pertsona hel- duaren ibilera zailduko duten arkitektura oztoporik ez eta trabarik ere.

Idatz-zati berria. Espedienteen tramitazioa, bai pertsona zaharraren eskabidearena bai pertsona hartzaileena ere, oinarritzko gizarte zerbitzuek egi- nen dute, eta foru Gobernuak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentura bidaliko dira, interesdunek sinatuak, behar diren txosten tekni- koekin eta eskaturiko gainerako dokumentazioa- rekin batera.

Idatz-zati berria bis. Oinarritzko gizarte zerbi- tzuek harrera eskatu duten pertsona zaharrak zaintzeko egokien jotzen dituzten familia hartzaile- ak hautatu eta proposatuko dizkiote Gizarte Ongi- zate, Kirol eta Gazteri Departamentuari. Horreta- rako, laguntza-zerbitzu tekniko bat izanen dute.

Idatz-zati berria ter. Egokitasun-adierazpena eginen da familia hartzaileei buruz eta pertsona zaharrei edo/eta kasuan kasuko harrerari buruz, eta eginen da txosten teknikoak, hala psikologikoak nola sozialak, eman ondoren. Horretarako, oinarritzko gizarte-zerbitzuek Gizarte Ongizate Departamentuak eskainitako harrerari laguntzeko zerbitzu berriazko bat izanen dute.

Idatz-zati berria quater. Aipatutako txosten teknikoetatik ondorioztatzen bada familia hartzaileak edo harrera eskatu duten pertsonak ez direla egokiak harrerarako, eskabide hori ezetsia geldituko da.

Idatz-zati berria quinqueter. Txosten teknikoetatik ondorioztatutako balitz egokitasunik eza kasu zehatzerako dela, baina beste harrera batzuk posible direla, eskabideak itxaron zerrendara pasako dira.

Idatz-zati berria sixter. Harrerarako egokitzat deklaraturiko familia hartzaileen eta pertsona zaharren eskabideen zerrenda Nafarroako Gobernuko Ongizate Departamentuak zentralizatu eta gaurkotuko du.

#### **6. artikulua.** Eraketaren baldintza formalak.

1. Harrera-hitzarmena eskritura publiko bidez eratu behar da; eskritura hori behar den erregistroan inskribatu beharko da.

2. Harrera-kontratuei buruz eskritura publikoa egin beharko da eta zehaztasunez adieraziko ditu alderdi bakoitzari dagozkion kontraprestazio, eskubide eta betebeharrak. Dohaintzak edo jaraunspen-xedapeneko bestelako egintza batzuk jasotzen dituzten estipulazioetan aintzat hartuko dira Nafarroako Foru Zuzenbide Zibileko Konpilazioko 149. legeak ematen dituen ahalmenak. Halaber, harreraren hartua den pertsonari kasu guztietan erreserbatuko zaio bere ondasunak administratzeko daukan eskubidea.

3. (KENDUTA).

## **II. KAPITULUA**

### **Hartutakoaren eta hartzailearen arteko harremana amaitzea**

#### **7. artikulua.** Harremana amaitzeko arrazoiak.

1. Harrera ondoko arrazoiengatik amaituko da:

a) Harrera-hitzarmenean ezarritako arrazoiengatik.

b) Hartzaileak eta hartutakoak ados jarri eta hala erabakitzen dutelako.

c) Bi aldeek nahi dutelako; borondate hori idatziz adieraziko da. Harremanaren amaiera fede

emateko moduan jakinaraziko zaio beste aldeari, hiru hilabete lehenagotik.

d) Alde batek nahi duelako, beste aldeak dagozkion betebeharrak ez badiu betetzen edo bizikidetasuna zailtzen duen arrazoiaren bat egotzen ahal bazaio. Halakoetan, harremanaren amaierari buruzko jakinarazpenean arrazoiak azaldu beharko dira eta berehalako eragina izanen du.

e) Hartutakoa edo hartutakoak hiltzean edo haren/haiei heriotza deklaratzeko.

f) Hartzailea edo hartzaile biak, baldin eta bikoite hartzailea bada, hiltzean edo haren/haiei heriotza deklaratzeko. Haietako baten heriotzak orobat ekar dezake harrera-hitzarmenak ezarritako kontraprestazioa berrikustea eta harrera-hitzarmena amaitzea, baldin eta bizirik dirauenak onartutako betebeharrak aurre egiterik ez duela justifikatzen badu. Hala bada, hiru hilabete lehenago jakinarazi beharko dio pertsona hartuari.

2. Harreraren amaitzeak ukituriko pertsona hartuak administrazioak beste harrera-hitzarmen bat eskaintzeko lehentasuna izanen du.

3. (KENDUTA).

#### **8. artikulua.** Harrera amaitzearen ondorioak.

1. Harrera amaitzen den kasu guztietan, pertsona hartuak edo pertsona hartuek etxebizitza uzteko epe eta baldintzei dagokienez, aldeek harrera-hitzarmenean adierazitako borondateari begiratuko zaio.

2. Amaiera 1. artikuluko 1.c) eta 1.d) letretan adierazitako arrazoiengatik gertatzen bada, eta harrera egiteko baldintzak eta denbora direla medio aberaste bidegabea gertatu bada, bere burua kaltetuzat jotzen duen aldeak kalte-ordaina eskatu ahalko dio beste aldeari.

3. Harreraren amaiera foru lege honen bidez sortutako erregistroari jakinarazi beharko zaio.

4. (KENDUTA).

5. (KENDUTA).

6. (KENDUTA).

**9. artikulua.** (KENDUTA).

**10. artikulua.** (KENDUTA).

**11. artikulua.** (KENDUTA).

**Artikulu berria.** Gobernuak prestatzen duen plan gerontologikoaren edukietako bat izanen da pertsona zaharrak familian hartzearen gaineko araudia; araudi horretako abiapuntua izanen da harrera formula bat dela, zeinak bete behar duen

helburu soziala aintzat hartzen duen –beren buruaz baliatzeko zailtasunak dituzten adineko pertsonen baldintza batzuk, hau da, familian integratzea eta gizartearen parte izaten segitzea, eskaintzea–, atxikirik duen kontratu askatasuna errespetatzeaz batera.

**13. artikulua.** Onuradunen hautaketa, uko egitea eta finantzaketa.

1. Administrazioak ebatziko ditu interesatuen eskaerak, eta horretarako pertsona zaharren beharrak eta hartzailearen ezaugarriak bateratu beharko ditu, zenbait alderdi aintzat hartuta, hala nola, hartua den pertsona edo pertsonak eta hartzaileek batak bestearekiko onarpena ematea, gizarte zerbitzuen aldeko txostena, hartzaileen eta hartzea eskatzen duen pertsonaren txosten medikoak, eskatzailearen eta hartzaileen arteko hurbiltasun ideologikoa, erlijiosoa eta hizkuntza aldetikoa, eta pertsona zaharra haren ohiko inguruetik mugitzea desegokia izatea.

2. Eskaerei uko egiteko arrazoiak hauexek dira: eskatzailearen adimeneko gaixotasuna, hartua den pertsona bizi behar duen lojamenduaren desegokitasuna, familia hartzailearen osasuna,

eskatzailearen eta familia hartzailearen arteko bateraezintasun erlijiosoa eta ideologikoa.

3. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak laguntza zehatzak finkatuko ditu hartutako pertsonentzat, beste lojamendu mota batzuetarako ere ezarritakoen ildotik.


**Xedapen gehigarria. Bakarra.** Familietan hartutako pertsona zaharren erregistroa.

Nafarroako Gobernuak familietan hartutako pertsona zaharren erregistroa sortuko du, Gizarte Ongizatearen Institutuaren menpe. Bertan erregistratuko dira pertsona zaharrak beraienak ez diren familietan kontraprestazio ekonomikoarekin hartzeko Nafarroako Foru Komunitatean formalizaturiko itun edo akordioak, administrazio publiko eskudunak esku hartzen duenean horietan.

Erregistroan bilduko dira gainera hartzaileen eta hartutakoen bajak, bertan behera utzitako harrerak eta horren arrazoiak, bai eta egokitzat jotzen diren bestelako datu garrantzitsu guztiak.

**Azken xedapena.** Indarra hartzea

Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabetera hartuko du indarra.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> <b>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</b> Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urte bat ..... 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 1,14 »	